

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ATE BIRAKARIAK ETA ENPRESARIEN SOLDATAK
EUSKAL HERRIAN
2. KUTXABANK
3. NAFARROAKO BERMATUTAKO ERRENTA BERRIA
4. EKONOMIA KRITIKOAREN JARDUNALDIAK
5. PROPOSAMENA: ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANA
AZALERATU

1. ATE BIRAKARIAK ETA ENPRESARIEN SOLDATAK EUSKAL HERRIAN

Enpresetako buruzagiek izaten dituzten soldatak izugarriak izaten dira kasu askotan; eta ez dira gutxi politika utzi eta enpresetara jauzi egin dutenak, tranpolin bat erabili balute bezala. Hori egin duten batzuek argi uzten dute errealitate hori ez dagoela Euskal Herritik urrun.

Gurean ate birakariak erabili dituen azkena Yolanda Barcina izan da, Nafarroako Lehendakaritza eta UPNkoa utzi bezain laster Telefonicako administrazio kontseiluan besaulki bat eskuratu baitu. Komunikabideek diotenez 200.000 euro inguruko soldata izango du bertan; gogoratzekoa da politikan sartu baino lehen Nafarroako Unibertsitate Publikoan aritzen zela Elikadura eta Bromatologia sailean, komunikazio sektoreko enpresa handi bat zuzentzearekin erlazio asko ez duen gaia dirudielarik.

Alor honetan argitaratu den beste datu ofizial bat Josu Jon Imazena izan da, EAEko Industria Kontseilari eta EAJko buruzagi ohia izandakoa. Honek 2008an utzi zuen alderdia Petronorreko presidente izateko. Hain ondo egin omen du bere lana 2015ean Repsoleko kontseilari nagusi izendatu baitute, presidentearen soldata berberarekin: 2,9 milioi euro 2015. urtean.

2014ko kalkulu orokor batek IBEX-35eko enpresetako administrazio kontseiluetan 43 politikari ohi zeudela erakusten du, batez bestean 5 enpresako 6 politikari ohi. Politikari ohi hauen soldaten batura 21,4 milioi eurokoa izan zen urte hartan, ia 500.000 euro buruko. Eta batzuek media hori baino askoz gutxiago kobratu bazuten ere, egon ziren bi (Matías Inciarte eta Florentino Pérez) bakoitzak 5 milioi euro kobratu zituztenak.

Azpimarratu beharra dago 43 politikari horien gehienak PP (18) eta PSOErekin (11) erlazionaturik egon zirela. Gainontzekoak UCD (6), EAJ (3), CIU (2) eta afiliazio gabekoak (3) izan ziren politikan jardun zutenean.

Ate birakaririk gabe, 2015ean enpresa handi bateko soldata altuenetakoa Ignacio Sánchez Galánek jaso

zuen, Iberdrolako presidente izateagatik (IBEX-35eko bosgarren enpresa handiena kapital mailan). Bere diru-sarrerak 9,5 milioi eurokoak izan ziren, 2014an baino %4,1 gehiago. Kopuru hori 1.000 lanbide arteko gutxieneko soldataren parekidea da, urteak dituen 365 eguneko 26.000 euro (225 lanegun bakoitzeko 42.222 euro).

Izugarriak dira ere 2015ean beste enpresa handi batzuetako buruek izandako soldatak: Gamesako Igancio Martínek 2,4 milioi euroko soldata izan zuen; Francisco González, BBVAkoak 5,6 milioi euro; CIE Automotivoko zuzendari Jesús María Herrera eta Fermín del Ríok 1,7 eta 1,1 milioi euro, hurrenez hurren; eta Alberto García Erauzkinek, pribatizatu berri den Euskaltelekoak, milioi erdi euro.

Pedro Abasolok, Tubos Reunidoseko presidentea, 491.000 euroko soldata izan zuen 2015ean, EAEko Lehendakaritzak Joxe Mari Korta saria eman zionean enpresari izateagatik. Saria jaso eta hiru hilabete ondoren, zuzentzen duen taldeko enpresa batek (Productos Tubulares) enplegu erregulazio espediente tenporala planteatu zien bere 400 langileei; hilabete beranduago, Tubos Reunidoseko langileei ezarri nahi diete beste espediente bat, kasu honetan ia mila lagunek lan egiten duten Amurrioko lantegian.

Honek guztiak agerian uzten du soldatek ez dutela zerikusirik izan behar meritu edo bikaintasunarekin, hein handi batean interes eta botere erlazioen ondorio baitira. Aipatu ditugun enpresarien soldatak gehiegizkoak dira ekoizkotasunaren ikuspuntutik; eta are gehiago Euskal Herrian dauden soldata eta gizarte ezberdintasunak aintzat hartuta, urtero aplikatzen diren politika erregresibo eta bidegabeek sakontzen dituzten ezberdintasunak. Gainera, politika horiek aplikatzen dituzten pertsona asko eta asko enpresa handietan jubilatzen amaitzen dute.

Horregatik, ez dirudi harritzekoa politika utzi eta enpresa handietako zuzendaritzara doazen pertsonak alderdi politiko kontserbadore edota neoliberal batekoak izatea, alderdi horiek baitira kapitalaren eta aberatsen interesetatik hurbilenak. Politikak kapitala eta aberatsak defendatzeari uztearen gakoetako bat ate birakariak debekatzea

da, gaur egun politika hondoratzen duen ustelkeriaren "A aurpegia" baita. Politikariek enpresa handien mozkinak defendatzen urrezko jubilazioa bermatuta duten bitartean, zaila izango da politikan dihardutenean biztanleen gehiengoaren eskubide eta interesak defendatzea.

2. KUTXABANK

Kutxabankek 2015eko emaitza ekonomikoak argitaratu ditu, mozkinen handitze garrantzitsu batekin. Diotenez gestio onak, komisio handiagoek eta gastuen murrizketak eragin dute mozkinen handitze hori; aldiz, arrazoi nagusia Euskaltelen salmenta izan da, nahiz eta komisioen igoerak eta gastuen murrizketak ere eragin txiki bat izan duten.

2015ean Kutxabanken mozkinak 218,8 milioi euroakoa izan da zerga baino lehen, 2014an baino 68,5 milioi gehiago (%45,5 gehiago). Hobetze hau Euskaltelen salmenta bezalako aktiboen salmenten eta finantza eragiketen emaitza izan da batik bat; 2015ean 283,9 milioi euro lortu baitira honengatik (2014an 111,6 milioi izan ziren). Horri gastuen (soldadak, administrazioa eta amortizazioak) 23 milioi euroko murrizketa gehitu behar zaio eta baita komisioengatik lortutako diru-sarreraren 9 milioi euroko hazkundera ere. Gainontzeko atalek 135,8 milioi euroko murrizketa jasan zuten.

Zehazturik eta argitaraturik dagoen azken informazioaren arabera (2015eko lehen seihilekokoan), pertsonal kostuak ia milioi bat eurotan murriztu dira aurreko urtearekiko, 2014ko lehen seihilekoan diru-sarreraren %51,4 izatetik %49,1era pasatuz 2015ekoan (diru-sarrerak interes eta komisioen soberakina izanik).

Adierazle gisa, administrazio kontseiluko 16 pertsonak 1.837.000 euro jaso zituzten 2015ean eta zuzendaritzakoek 1.851.000 euro, egon daitezkeelarik bietatik kobratu zuten pertsonak.

2015ean izandako mozkinetatik, Kutxabankek 78.814.000 euro banatu zituen dibidendutan; eta beste 30,6 milioi banatzeko proposamena egin du, horrela mozkinen %50 banatzeko (aurreko urteetan %30 baino gehiago ezin zutela banatu argudiatzen zuten Europako arauen arabera). Baina BBK, Kutxa

eta Vitaleko banku fundazioei banatuko zaizkien dibidenduen handitzea ez da gizarte-ekintzara bideratzeko, baizik eta gizartearen beharrek inolako zerikusirik ez duen erreserba funts batean gorde eta likidezia maila bermatzeko.

3. NAFARROAKO BERMATUTAKO ERRENTA BERRIA

Nafarroako Gobernu berriak Gizarteratzeko Errenta aldatu eta babes soziala handitzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hau gobernua sustengatzen duten lau alderdiek sinaturiko akordio programatikoan biltzen da, eta honen arabera, gobernua eratu eta sei hilabete baino lehen egin beharreko aldaketa zen hau.

Nahiz eta sei hilabete igaro ondoren izan, Eskubide Sozialerako Departamentuak Gizarteratzeko Errenta aldatuko duen Lege aurreproiektua aurkeztu berri du. Lege aurreproiektu honek izena ere aldatzen dio prestazio honi, eta Bermatutako Errenta izango da aurrerantzean.

Lehen balorazio bat eginez, aurreproiektu honek jasotzen dituen aldaketa nagusien artean, hauek daude:

Bermatutako Errentak bi eskubide jorratzen ditu, batetik gizarteratze eskubidea kalteberatasun egoeran daudenez, eta bestetik prestazioa jasotzeko eskubidea oinarritzeko beharrak asetzeko adina baliabide ekonomikorik ez dutenez.

Lehen eskubideari dagokionez, gizarteratze prozesuan sartzeko ez da erresidentzia minimorik eskatuko, eta gizarte bazterketa egoeran egotea izango da baldintza nagusia.

Bermatutako Errenta jasotzeko aldiz, bi urtez Nafarroan bizi izatea eskatuko da (zenbait salbuespenekin). Baldintza honek kritika ugari jaso ditu, jende asko kanpoan uzten duelako eta gainera akordio programatikoan urte bateko baldintza adostu zelako.

Beste alde batetik, prestazio hau jaso ahal izateko 18 urtetik gorakoa izan beharko da, baina 18 eta 25 urte bitarteko bi urtez bere familietatik aparte bizi izan beharko dute. Honek ere jende ugari utziko du

eskubiderik gabe, eta hau ere ez zegoen akordio programatikoa.

Prestazioaren zenbatekoari dagokionez, gutxieneko soldatan oinarritzen zen orain arte, eta erreferentzia hori kentzen du aurreproiektu honek. Aldaketa hau oso kezagarria da.

Zenbatekoarekin jarraituz, Bermatutako Errenta berriak murrizketa handia suposatuko du pertsona bakarreko famili unitateentzat. Orain jasotzen duten prestazioa 655,2 eurotako da (gutxieneko soldataren adinako), eta Gobernuaren proposamenarekin 600 euro izatera pasako litzateke (55,2 euros gutxiago). Aipatu beharrekoa da gaur egun prestazio hau jasotzen dute famili unitateen ia erdia pertsona bakarrekoa dela (% 45,9a).

Bi pertsona edo gehiagoko familia unitateetan berriz, orain arte jasotzen zutena baino diru gehiago jasoko dute. Baina igoera hori txikiagoa da bi pertsonetako famili unitateetan, beheko taulan ikus daitekeen moduan. Hau da, pertsona bakarreko familia unitateei prestazioa jaitziko zaie gainontzekoei igotzeko, aurrekontu doitzeak behar sozialen gainetik jarriz.

Famili unitateko pertsona kop.	Gaur egun	Proposatutakoa
1	655,2	600,0
2	786,2	810,0
3	851,8	960,0
4	917,3	1.050,0
5	982,9	1.140,0
6 edo +	982,9	1.200,0

Prestazioaren epeari dagokionez, 12 hilabeteetarako prestazioa izango da, eta beharrak dauden bitartean luzatu ahal izango da. Orain arte 30 hilabetekoa zen epemuga, eta tope hau kendu egingo da.

Proposatzen den Bermatutako Errenta orain arte dugunarekin alderatzen badugu, bistakoa da aurrera pauso batzuk ematen dituela, eta baita ere atzera pausoak ere. Dena den, argi geratzen da proposamen honek ez duela zer ikusirik egoera

sozialak exijitzen duen aldaketarekin. Onartezinak dira murrizketak eta beharrezkoa da babes soziala handitzea prestazio sozial duinak izateko.

4. EKONOMIA KRITIKOAREN JARDUNALDIAK

Martxoaren 10, 11 eta 12an XV. Ekonomia Kritikoaren Jardunaldiak burutu dira Madrilén “Kapitalismoaren mugen aurrean analisi ekonomikoa” izenburupean. Bertan estatu ezberdinetako unibertsitate, gizarte eta sindikatu arloko aktoreek parte hartu dute, ELAko Azterketa Bulegoko hainbat kide barne. Jardunaldi hauetan eztabaida kritikoak egin dira eredu ekonomiko dominanteari buruz formatu ezberdinetan: bilkurak, mahai paraleloak, tailerrak eta batzarra.

Jardunaldietan kapitalismoari buruzko ideiak azaldu eta eztabaidatu dira, ohiko masa-komunikabideek ematen dituzten irakurketen oso ezberdinak. Horien artean, lekua egon da ikuspuntu heterodoxoa osotzen duten gai guztientzako: lan-harremanak, analisi ekonomikoa, marxismoa, feminismoa, politika neoliberal eta moneta funtsaren doikuntzak, demokrazia, Europar Batasuna, ondo bizitzea, ekologia eta esperientziak eta alternatibak planteatzea.

Aipagarriak izan dira Andrew Kliman eta Steve Keen ekonomilari ospetsuek izandako eztabaida bortitz eta interesgarria, lehena marxista eta bigarrena postkeynesiarra direlarik. Baita Marcelo Carcanholok (Latinoamerikako Ekonomia Politiko eta Pentsamendu Kritikoaren Elkarteko zuzendaria) emandako azalpena Latinoamerikan egindako doikuntza neoliberaleri buruz: Brasilek eta bertako Langileen Alderdiak izandako lidergo paperak bankuak aberastea ekarri baitu, nazioarteko harremanen ereduari alternatibak sortzea ekidin duelarik ere. Mario del Rosalek egindako aurkezpenak Europar Batasunaren sortze prozesua aztertu eta bere izaera antidemokratiko eta kapitalista agerian utzi zuen.

Bestalde, Jon Las Herasek mahai paralelo batean Manchesterreko Unibertsitatean bukatzeaz dagoen doktoregoaren aurkezpena egin zuen, gaia langileen arteko elkartasun bertikal eta horizontala izanik nazioarteko balio-kateetan; hau da: leku

ezberdinetan dauden enpresetako eta horien kontratatutako langileen arteko kooperazioa. Eman zuen adibide esanguratsua Vitoria-Gasteizko Mercedes-Benz kasua izan zen, bertako langileen lan-baldintzak kontratatutako baina kaxkarragoak direlako. Eta ikuspuntu akademikoaren arabera estrategia hobereza ezin zehaztu daitekeela badio ere, “erantzun seguru bakarra (...) langileak ahalduntzea” eta “elkartze-botereak ehuntzea” dela baieztatzen du “klase boterea indartzeko”, klaseen artean eman daitezkeen “konfrontazio zuzenetan indar-erlazioa langileen alde agon dadin”.

Azken finean, ekonomia kritikoak kapitalismoaren mugen aurrean sortutako erronkak ikuspuntu heterodoxotik, eta hainbatetan erradikaletik, heltzea du helburu. Zehaztuz, ahalduntze eta aurre egiteko estrategiak direla langile klasea gehien eta hoberen defendatzen dutenak.

5. PROPOSAMENA: ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANA AZALERATU

Lanaz mintzatzen garenean ez dugu soilik ordaindutako jarduera esan nahi. Halere, ordaindu gabeko etxeko lana ezkutuan geratzen da: zaintza, hezkuntza, otorduak edo etxebizitza eskaintzeko eginbeharrak, edota arropa eta garbitasunarekin lotutakoak, besteak beste.

Lan guztiok funtsezkoak dira bizitza mantentzeko, eta horrenbestez bere balioa ezin da kalkulu ekonomiko batekin neurtu. Kontutan izanik bizi garen gizarte honetan merkatu-irizpideak direla nagusi, garrantzia du Eustatek (Euskal Estatistika Institutua) 1993tik hona egiten duen Etxeko Lanari buruzko Kontu Sateliteak. Argitaratu berria da 2013 ekitaldiari dagokiona; urte horretako datuak jasotzeaz gainera, lan hauen bilakaera zein den aztertzeke baliagarria da.

Eustaten arabera, 2013an ordaindu gabeko etxeko lanen balioa EAEn 21.342,1 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGaren %32,4. Kopuru hau Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren bikoitza da. Zenbatekoa oso handia da; gainera, Eustatek ondorioztatu du krisi aldietan etxeko lana gehitu egiten dela, lehenago merkatu bidez osatzen ziren lanak (hau da, zerbitzu publikoen edota familiek

kontratutako zerbitzuen bidez) etxeko esku geratzen direlako: lehenago ordaindua zen lanaren zati bat ez ordaindua bihurtzen da, eta senideek egiten dute. Hori gertatu da zerbitzu publikoetan egin diren murrizketengatik edota familiek galera ekonomikoa izan dutelako (langabeziaren edo soldata urriagoaren poderioz).

Etxeak edo familiak aipatzean esamolde neutroak ari gara erabiltzen, baina honek beste errealitate bat ezkututzen du: etxeko lan ez ordaindua gehienbat emakumeek egiten dute, zehazki %66,7, edo gizonen bi halakoa (%33,3).

Etxeko lanak gizon eta emakumeen artean berdintasunez banatzea jendarte justuago baten oinarrietako bat litzateke, eta horretara iristeko bide luzea dugu aurretik. Azken urteetan gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna leundu egin da, baina oraindik ere izugarria eta onartezina da. 2008an (aurreko Kontu Satelitea orduan egin zen) emakumeen bizkar zegoen etxeko lanaren %71,4 (gizonek, aldiz, %28,6). 1993an, EAerako lehen estimazioa egin zen urtean, emakumeek lanaren %79,3 egiten zuten eta gizonek, berriz, %20,7. Interesgarria litzateke argitaratzen diren datuek adinen banaketaren berri ere ematea. Gure ustez, horrek desberdintasunak salatzeko eta horiei aurre egiteko aukera hobe emango liguke.